

Ardi eta errege beltzak

Hondarribia, 9. zk., 1986-12: 7.

Gure artean ardi gehienak zuriak direnez gero, beltza izatea suertatzen zaionak badu berarekin, ez badaki ere, jaiotzatik mesprezuzko marka bat.

Bekokian orbain itsusi batekin jaio balitz bezalatsu.

Suertatu zen egun batez, eta bada hogeitau urte, Jose Mari Etxaburuk, izenordez "Kamiñazpi", Donostiako aurrezki-kutxa baten dela eta. Hondarribiko historia labur bat bidali zuela. Eta bidali zuenean, zain-zain geratu zen. Irten ziren azkenean prentsan euskaltzaleek osatzen zuten mahikoek onartutakoak, eta bera ez. Jakin ahal izan zuenez, lan denen artean euskaraz egindako bakarra izan, eta lehiaketaren oinarrietan hizkuntzarik aipatzen ez bazen ere, gaztelania hutsean egin behar zela ulertu zuten. Belarria horretara jarria! Joxe Artetxe idazleak, beste askotan bezala, euskarazkoa argitaratzeko asmoa erakutsi zuen, baina gaur Hego-Afrikan ardi beltz bat artalde zuri-borobil ederraren barruan botatzea bezalako harrigarri zen hau orduan Euskalerrian.

Beste hogeitau urte pasa eta gero, Diktatorea hil zela hamaika, agertu zaigu egun hauetan Etxaburu'tar Jose Mari, "Kamiñazpi" idazlearen *Hondarribiako kondaira*, hizkuntza txukun eta kondaira giharrez betean.

Bestela, hainbeste gauza jakin gabe geratuko nintzen, ni behintzat.

Arrantzale Anaidiako Ahatean ezizenak: Arraka-tik hasi 1900an, *San Pedro* bera tartean dela, eta *Sabie* eta *Pompes*, *Artzaia*-rekin *Buru aundi*, *Borttolo*, *Potzua*, *Romanones* bera ere tartean titulorik gabe, *Sakarra*, eta *Beltza* (hau ez da ardia), *Generala* eta *Antzara*-ren hega bide dela *Praixku*, *Gazta* eta *Buru txuriak* atzetik dituela, 1974 arte Zuzenduko zizkioten bere *otoitzak Guadalupeko Andra Mariari*; itsasorantz abiatzean Aitagure bat eta hiru Agur Mari, eta etxerakoan, berriz, Salbea. Hemen agertzen dira herriko bei, idi, txekor, begantxa, txerri, asto eta ardiak, beltzak barruan direla. Baita Hondarribiko izen ederrez deituriko *baserriak* ere, bailaraz bailara. Herriko *langintzak*, zur eta burdin. Dituen *elizak*. Nagusia dena eta Guadalupekoaz gainera, Maria Madalena Portuan, Buruñurdunena Amuten; Betharramitena Mendelun; eta *ermitak* Graziako Ama (Santa Engrazia), Saindua, Barbara Deuna, Montserrateko Ama eta Santiagotxo.

Hondarribiko *hizkeraz* era badio jakingarririk gaskoina eta gaztelera izan ziren idazkeraz nagusi aldi batean, eta sermoiak gaztelera, gudarosteko agintarientzat (1612); gainontzekoak euskaraz herriarentzat, eta gaztelera ere bai batzuk Garizuman ardi beltzen hizkuntza ulertzen ez zutenentzat; aipatzen dire herriko *idazleak* Basurko, Satarka eta Bordariz gainera beste zaharrago batzu; Etcheberry, Telleria eta Zabala, Sarako Joanes d'Etcheberry, Afrikan ibili zen Florentino Landart, Otaegi, Piarres Lhande; *margolariak* Etxenagusia, Sagartzazu, Sorondo, eta batez ere Enrike Albizu, hemengo lanez gain Ameriketako obra egina (han egin zion erretratu on bat Joseba Andoni Agirre Lehendakariari, hau handik pasa zen batean, eta Caracasko Eusko Etxean

dago); baita Grazenea, Sistiaga eta Arantzazun eta bestetan obra handia egin duen Nestor Basterretxea; eta Mendiburu eskultore ospatsua, herrikoseme, inor bada; eta Esuain eta Amunarriz.

Kanpotarra bada ere, Daniel Vázquez Díaz ez da hemen ahaztutzekoa.

Siniskeriaz, berriz, aipa dezadan Hondarribiko esakera bat: "*Etxean katar beltza jaiotzen bada, zorionaren zentzua da*". Honek ez du ardi beltzarekin zerikusi haundirik, koloreaz kanpo, ardia emea baita; ahariaren emea, hain xuxen. Baina gure herrian beltza, *zorigaiztoko beltza* da gehienetan hara liberala karlistentzat eta bertsojarleentzat, bola beltza, zuri garbien ondoan; egun beltza, argien artean; kapataz gogorra ere beltza da azpian dauzkan langileentzat; Santa Kruz apaizaren guardiaren kolorea ere beltza zen, nahiz eta karlista izan; barru beltza ez da garbia; beltzatzea, iraintzea da, belztasuna, zitalkeria, beleari, beltzetik datorkio izena; ipurbeltz, badakigu nork nori esaten dion.

Afrikan hau dena alderantziz izango da, baina gu hemen gaude oraindik.

Eta amaitzeko, bestela kolorea agortuko zait zintan, *ardi beltza*, xuria eta polita ez den ardia da. Gure euskara askorentzat ez dena; orain hogeitau urte euskaraz herri baten historia egiteko gauza izan zitekeen ere kontuan hartzen ez zena.

Eta orain, eta pittinka bada ere, zuritzen hasia dena.

Egia da egun batzu barru izarrek gidatuta Hondarribira helduko diren hiru erregeetatik bat, Baltasar, beltza dela, eta ez direla gure haurrak honenbestez izutuko.

Baina ardiak ez dira kamelu gainean erregaliak ekartzen dizkiguten erregeak!